



PRENTSA OHARRA 2024.07.22

## Janus Lester, Nøgen eta Zea Mays Finlandiako Basking Beat & Bite jaialdiaren laugarren edizioan arituko dira

- **Kontzertuak abuztuaren 29an eta 31an izango dira Helsinki eta Tampere**
- **Basking Euskal Etxeak sustatutako ekimen honek Etxepare Euskal Institutuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza du**

Gatibu, Zetak, Olatz Salvador, Izaro, Skakeitan, Bulego ETS, Huntza eta Mikel Urdangarin bezalako izenak pasa dira Basking Beat & Bite jaialditik aurreko urteetan. Aurtengo edizioan berriz **Janus Lester, Nøgen eta Zea Maysen** txanda izango da, deialdi ireki baten bidez antolakuntzak aukeratuak izan eta gero.

Jaialdiaren *beat* (erritmoa) zatiak, hau da, kontzertuek, nazioartean euskal sortzaileen zabalkundea sustatzearen helburuarekin bat eginez, Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du. **Emanaldiak abuztuaren 29 eta 31n izango dira Helsinki eta Tampere.**

Laugarren edizio honetako egitaraua hau da: Janus Lester eta Nøgen abuztuaren 29an arituko dira Tampereko GLiveLab aretoan. Egun berean, Helsinkin, Zea Maysen kontzertu akustikoa eskainiko du Ravintola Emo espazioan. Azkenik, abuztuaren 31n, hiru taldeak Finlandiako hiriburuko JunkyVegan gunean arituko dira. Aipatzekoa da Helsinkiko Unibertsitatean euskara eta euskal kultura irakasten direla aspalditik Institutuak sustatuta.

## Janus Lester, Nøgen y Zea Mays

Janus Lester folk musikaren, rockaren eta musika esperimentalaren elementuak uztartzen dituen estilo eklektikoagatik da ezaguna. Bere letra hunkigarriak eta ekoizpen berritzailea 'Ez gaitzala loak harrapatu' eta 'Maitasuna tabu' bezalako diskoetan islatzen da. Lesterren musika emozioak gogora ekartzeko eta istorioak melodia konplexu eta konponketa paregabeen bidez kontatzeko gaitasunagatik bereizten da, bere proiektu bakoitza entzumen-esperientzia aberasgarri bihurtuz.

Nøgen, bestalde, 2016an sortutako talde donostiarra da, folk, pop eta indie estiloak uztartzen dituena. Jokin Guilisagastik, Olatz Cuevasek, Markel Idigorasek, Alex Irazustak eta Ane Negueruelak osatzen dute taldea, eta 'Lys' (2017), 'Liv til døden' (2018) eta 'Under Alt' (2020) diskoak plazaratu dituzte. Bere ibilbideak tokian-tokiko kontzertu txikietatik hasi eta Euskal Herriko jaialdi garrantzitsuetarainoko garapena izan du. Nøgenen abestiek ahots-harmoniak eta erritmo markatuak dituzte ezaugarri. Ukelele, gitarra, baxu, bateria eta ahotsen konbinazioa pentsamendurik intimoenak partekatzeko prestatuta dago.

Azkenik, Zea Mays 1997an Bilbon sortutako rock eta pop banda da. Taldea Aiora Renteriak (abeslaria), Piti Imazek (gitarra), Ruben Gonzalezek (baxua) eta Asier Basabek (bateria) osatzen dute. Taldearen izen bereko lehen diskoa 1998an plazaratu zuten, euskal musika eszenan aitortzea eskuratuz. Zea Maysek rocka eta popa uztartzeko gaitasuna du, hitz hunkigarri eta konprometituekin. Europan zehar birak egin dituzte, Herbehereak eta Alemania barne, eta BBK Live eta Festimad bezalako jaialdi garrantzitsuetan hartu dute parte. 'Negua joan da ta' abestiak ospe handia lortu zuen MySpace eta YouTubeen, musika alternatiboren esparruan taldearen presentzia sendotuz. 25 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, Zea Maysek bere garrantzia mantendu du eta musika estiloan berritzen jarraitzen du, musika industrian nabarmendutako artista eta ekoizleekin elkarlanean.



## Euskal gastronomia hilabete osoan zehar

Aipatutako kontzertuez gain, jaialdiak euskal gastronomiari lotutako hainbat jarduera eskainiko ditu bere *bite* (mokadua) zatian, abuztuaren 13an hasi eta irailaren 7ra bitarte.

Horrela, Helsinki eta Tampere hiriek Euskal Herriko pintxoak ezagutzeko eta dastatzeko aukera eskainiko duten jaialdi bana hartuko dituzte: Helsinki Pintxo Festival, abuztuaren 13tik 17ra, eta Tamperrada: Tampere Pintxo Festival, 27tik 31ra. Ekitaldi horiez gain, Euskal Gastronomia Jaialdia egingo da abuztuaren 29tik irailaren 7ra Helsinkin, zeinetan Ricardo Pérez eta Borja Etxebarria sukaldariak Finlandiako sukaldari ospetsuekin lan egingo duten.

Basking Beat & Bite jaialdia Basking Euskal Etxeak sustatzen du, kultura eta gastronomiaren bidez Euskadiren eta beste herrialde batzuen arteko harremanak estutzeko eta herrialde hartan bizi diren euskaldunei topagune bat eskaintzeko helburua duen egitasmoa. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa ere jaso du.

### Info+

Maidar Urteaga Belza  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)